


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA (EEKI), 2013ko MAIATZA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,2 igo ziren 2013ko maiatzean aurreko hilaren aldean

2012ko maiatzaren aldean eraikuntza kostuak %0,7 gehitu ziren

2013ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,2 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,7, EUSTATEN datuen arabera.



2013ko maiatzean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,3 garestitu dira.

Maiatzean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,3ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,2koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,8 gehitu dira eta Obra Zibilekoenak %0,2 gutxitu.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Ez-metalezko industria (%2,8), Makineria (%2,7), eta Ez-metalezko mineralen erauzketa (%1,1) nabarmentzen dira, besteren artean. Aitzitik, urteko prezioetan (2013ko maiatza, 2012koaren aldean) murrizketak izan dituzte Metalurgiaren (%-5,4), Petrolio finitzaeren (%-2,8) eta Material elektronikoaren (%-1,1) lehengaiak.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO MAIATZA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,8	0,2	0,7	1,3
ERAIKINAK	103,5	0,2	0,9	1,4
OBRA ZIBILA	105,2	0,1	0,1	1,3
LEHENGAI A	103,8	0,3	0,7	1,4
ERAIKINAK	103,5	0,3	0,8	1,5
OBRA ZIBILA	105,7	0,2	-0,2	1,3
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

Eraikuntzaren Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizearen gaineko datu-bankua